

ALDAKETAK ZENBAIT EREDU INFORMATIBO AURKEZTEKO MODUAN

(159, 181, 189, 198 eta 345)

Abenduaren 17ko 2197/2020 Foru Aginduak 181, 198, 189, 159 eta 345 ereduak telematikoki aurkezteko betebeharra ezartzen du.



Aldaketak lehentasunezko helburu bat du: teknika eta bitarteko elektronikoaren, informatikoaren eta telematikoaren erabilera eta aplikazioa sustatu nahi dira zerga-administrazioaren eta zergadunen arteko harremanetan, eredu informatibo horiei dagozkien ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarri magnetikoen edukiaren aurkezpena ahalbidetzeko. Izan ere, harreman horiek zaildu egin dira, Covid-19ak sortutako osasun-larrialdiko egoeraren ondorioz.

Foru-aginduak, gutxi gorabehera, hau dio:

- 159, 181, 189 eta 198 eredu informatiboek dagokienez, Editran erabili behar ez duten aitortzaileek elektronikoki helarazi beharko dituzte sortutako fitxategiak eta inprimakiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez. Editran erabili behar dutenen kasuan, berriz, ez da aldatu ereduak aurkezteko modua.
- 345 ereduak dela eta, aurrerantzean ezin izango da paperean edo euskarrian aurkeztu.

159, 181, 189 eta 198 eredu informatiboetarako dagozkien fitxategiak eta inprimakiak elektronikoki aurkezteko, urrats hauei jarraitu behar zaie:

- 1) Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora sartu behar da (www.ebizkaia.eus), eta aitorten informatiboaren aurkezpenari buruzko izapidea bilatu.



2) Aurkeztu nahi den eredu informatibo bakoitzaren barruan, Izapidetu botoia sakatu, eta nork bere burua identifikatu, ziurtagiri digital bat erabiliz.

The screenshot shows a web browser window with the URL <https://www.ebizkaia.eus/eu/izapideen-katalogoa?electronico=SBtextotlibre=aitorpen+informatibo&simple=5>. The page displays a list of articles under the heading 'Izapidetzea'. Each article entry includes a number, a title, and a 'IZAPIDETU' button. The articles are:

- 290 eredua. Pertsona estatubatuar jakin batzuen finantza-kontuei buruzko urteko aitortpen informatiboa**
- 345 eredua. Ondoko hauen urteko aitortpenerako erabili beharrekoa: borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak, pensio planak, sistema alternatiboak, gizarte aurreikuspeneko mutualitateak, bermatu**
- 346 eredua. Nekazaritzako, abeltzaintzako edo basogintzako jardueren ondoriozko diru-laguntza, kalte-ordain edo laguntzei buruzko urteko aitortpen informatiboa**
- 347 eredua. Hirugarren batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpena**

The screenshot shows the authentication page of the Bizkaia Foru website. The URL is <https://eidas.izenpe.com/trustedx-authserver/izenpe/flowSelector.xhtml>. The page features the 'izenpe' logo and the heading 'Identificación electrónica de Euskadi'. Below this, it states: 'Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia solicita su autenticación. Seleccione cuál de los siguientes medios de identificación desea utilizar:'. There are three options for authentication:

- BAK** DNI/NIE/PASAPORTE y contraseña
- BAKQ** DNI/NIE, contraseña y coordenadas
DNI/NIE, contraseña y código SMS
- Certificados digitales**

At the bottom, there is a link for '¿Cómo solicitar BakQ?' and a 'Cancelar' button.

- 3) Ondoren, Erantsi dokumentazioa botoia sakatu behar da, eta txt fitxategia eta aurkezpen-karutula erantsi. Eta bi fitxategiak bidali.

